

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Ospela.
Xabi San Sebastian.
Elkar.
Iraupena: 57'08".
14,95 euro.

Ospelak uzten duen maisutasuna eta erregistro aniztasuna

DONOSTIAR HONEK eskarmentu handia dauka musikagintzan eta Izotz eta Albo-ka moduko talde beterranoen buru izateagatik ezaguna egin bazen ere, erregistro eta lengoia asko menderatzen ditu. Hala, bakarkako bigarren lan honetan kolore askotako doinuak landu ditu, baina folkarekin daukan lotura askotan dago presente, baita jazzarekin eta rockarekin ondo ezkontzen duenean ere. Are

gehiago, ahots melodiekin asko jokatzen du eta tarteka igartzen da musika afrikarra, arabiarra edota El Ultimo de la Fila adibidez oso gustuko dituela. Lan berean kantu xuxurlarietatik (*Goizeko lauetako airea*, *Gu haren itzala*, *Ilunean*) bat-bateko rock *hit*-etara (*Atzo naiz*, *Ta nik zer dakit*) edo brit-pop ukitua daukaten pieza progresiboetara (*Irrifar bat*, *20 aste*) salto egiteko gai da, beti ere dotoretasunez.

Xabi San Sebastian

«Astrofisikaria izan nahi nuen, baina proba egin ostean izarrei kanta egiten hasi nintzen»

Gaua eta izarrek oso presente daude zure hitzetan...

Nire lehenengo bokazioa astrofisikaria izatea zen. Leioan izan nintzen urtebetez fisika ikasten. Ordu pila sartu beharra, neska bakarra klasean... Izarrei buruzko kantuak egiten hasi nintzen.

Ta nik zer dakit. Zalantza eta jakin-mina badago, bada aurrera egiterik?

Bai noski, ez-jakintasunaren kontzientziarantz! Baina inguruan aurkakoa ikusten da, dena epaitu behar, hau ona da —bihar, berriz, txarra—, hura kondenatu behar, besteari beldurra, hau gabe ezin bizi... kaka.

"Harritzekoa da zaurien beharra nolabait heltzeko bizitza bakarra". Orban asko utzi dizkizu musikak?

Musikak berak ez, gaixoa; poz asko eman izan dizkit eta ematen dizkit, egunero. Musika-ren ingurukoak bai, orbanak, ospelak, urratuak eta abar. Imagina zaitez kaktus artean tai-txi egiten...

Zure aspaldiko jarraitzaileak harrituko dira *Harritzekoa* da kantu brit-popero bezain bizia entzutean?



Ez dakit. Estiloen gainetik musika maite dut. Kobetasonik jaialdia, baita albokari topaketa ere. Baina badira egindako guztian nire estiloa igartzen dutela esaten didatenak —bejondeiela!—.

Kantu rockero eta gitarreroetan baduzu zerbait hemengo taldeek galdu dutena eta kanpokoek ez daukatena; hemengo musika tradizionalarekin lotura daukazu-la... Askor zor diogu Niko Etxarti?

Bai! Ez nuen horretan pentsatu baina entzuteaz pozten naiz. Aupa Niko! Konplexurik gabe alde bietatik edaten du. Eta doazela pikutara askatasuna barkatzen ez duten *guay* guziak! *Atzo naiz* bat-bateko hit-a da, baina *Irrifar bat* edo *Hogeia* asteak hobeto irudikatzen dituzte zure errejistroak.

Bai, bi horiek progresiboak dira, ezusteko gehiago dituzte; *Atzo naiz* lauagoa da. Baina denak dira nere haurtxoak... Espero dut mundua ikusi dezatela eta belarri eta bihotz —eta patrika— askotatik pasa daitezela... Amen. ■